



Ihartze Díaz - Mónica Crespo
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

John Boyne	2
Sarrera	3
<i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	
• Kokapena	4
• Gaia	5
• Argumentua	5
• Istorioa	6
• Pertsonaiak	8
• Egituraketa	9
• Baliabideak	9
• Iritzia	10
Bibliografia	12
Webgrafia	12

JOHN BOYNE

John Boyne, 1971ko apirilaren 30ean, Dublinen jaio eta oraindik bizirik irauten duen idazle irlandarra da. Hainbat eleberri eta istorio motzen egilea da eta adin guztietarako aproposak diren obrak argitaratu ditu. Gaur egun ezaguna da, garai batean *The Boy in the Striped Pyjamas* liburua idazteagatik. Hala ere, hainbat hizkuntzatarara itzulia izan da, haien artean euskarara (*Pijama marradunaz jantzitako mutikoa*). Idazle honek bere bizitzan idatzitako liburuen artean hauek dira aipagarrienak: *The Thief of Time* (2000), *Crippen* (2004) eta *Next of Kin* (2006), besteak beste. Bere gaztaroan, “Carmelitas Terenure College” ikastetxean ikasi zuen eta ondoren “Trinity Collegen”. Azkenik, East Anglia unibertsitatean ikasketak jaso zituen.



SARRERA

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa, horrela titulatzeko da John Boyne idazle irlandarrak idatzitako obra; II. Mundu Gerra garaian gertatzen den istorioa kontatzen du. Bruno, etxez aldatzen denean, ez du bere adinako inor ezagutzen harekin mintzatzeko edota jolasteko. Harreman berriak sendotzeko kidea aurkitzeko etsipenean, Shmuel ezagutzen du. Hura kontzentrazio esparruan bizitzera behartuta dagoen ume judua da. Shmuel ezagutzeak zenbait aldaketa ekarriko ditu Brunoren bizitzan.

Obra honetan, hainbat gai lantzen dira. Adibidez, adiskidetasuna, abentura, bazterketa soziala, errugabetasuna, holokaustoa eta askatasun nahia, besteak beste.

Obran agertzen diren pertsonaia nagusiak hurrengoak dira: Bruno, Gretel, Shmuel, Brunoren gurasoak eta aiton-amona eta etxeke zerbitzariak. Hala ere, bigarren mailako pertsonaiak ere badaude. Adibidez, Bruno edo Gretelen lagunak.

Obra, bereziki, Brunoren etxe berriaren inguruko eremuetan gertatzen da; hau da, Austbizen.

Liburua kapituluka bananduta dago, zehatz-mehatz, 20 kapitulutan eta horietako bakoitzak istorioaren gertakizun berri bat kontatzen du.

Obra nobela bat da. Horrela, pertsonai batzuen istorioak narrazio moduan kontatzen ditu eta, tarteka, elkarrizketak agertzen dira. Narratzaileak obraren gertakizunak hirugarren pertsonan kontatzen ditu. Hala ere, pertsonaien barne pentsamenduak ere adierazten ditu zenbaitetan lehenengo pertsona erabiliz.

KOKAPENA

Eleberri honek, II. Mundu Gerra garaian gazte batek eta haren familiak bizi izandako gertakizunak narratzen ditu. Ondorioz, Bigarren Mundu Gerra garaian kokatzen da kronologiari dagokionez.

1939-1945 urte bitartean mundu osoan zehar hedatu zen gerra izan zen. Izan ere, munduko eta momentu hartara arte gertaturiko gerrarik odoltsuenetarikoa izan zen, baita hildako kopuru handiena izan zuena ere. Bi alderdi lehiatu ziren: Aliatuak (Britania Handia, Frantzia, Estatu Batuak eta Errusia) eta Ardatza (Alemania, Italia eta Japonia). Neutralak ere bazeuden.

1939ko irailaren 1ean, Alemaniak Polonia inbaditu zuen. Frantziak eta Britania Handiak ez zuten hori onartu eta ondorioz Alemaniari gerra deklaratu zioten. Alemaniak European inperio berri bat sortzeko helburuarekin inbaditu zuen Polonia. Aldi berean, naziak SESB bereganatzen saiatu ziren, eta hori Sobietar Batasuna gerran sartzearen arrazoia izan zen. Gainera, Japoniarrak Estatu Batuak Pearl Harboren zuen baseari eraso egin ziotenean, Amerikako Estatu Batuak gerran sartu zen.

Horrez gain, juduek ezinbesteko boterea zuten garai hartan. Hitler diktadoreak uste zuen arraza ariako kideek alemandarrak zirela eta gainontzeko arrazak ez zutela inolako garrantzirik. Pentsamendu hori juduak akabatzeko erabili zuen.

Bestalde, nazien ustez, Alemaniaren beherakada horretan juduek eragina izan zuten; hau da, txirotasuna, Lehen Mundu Gerrako porrota eta langabezia.

Gatazka horren emaitza Aliatuen garaipena izan zen. Gerrak ondorio larriak ekarri zituen bai ekonomikoki, bai politikoki eta herritar guztiengan eragina izan zuen.

GAIA

Liburu honetan zenbait gai lantzen dira; esate baterako, adiskidetasuna, abentura, bazterketa soziala, errugabetasuna, holokaustoa, askatasun nahia, miseria eta goseteak. Hauek guztiak Bigarren Mundu Gerran gertatu ziren arazoekin zerikusia dute eta 9 urteko ume batek bizi izandako abenturetan plasmaturik aurkitzen dira.

ARGUMENTUA

Brunok (istorioko protagonista) eta bere familiak Berlinetik Auschwitzera bidaiatu beharko dute, aitaren lana dela eta. Bertan, Brunok etxe berriko inguruan dagoen kontzentrazio esparruko lagun batekin (Shmuel) igaroko ditu bertan pasatuko duen denboraldiko arratsaldeak. Arratsalde horietako batean, Shmuelek mesede bat egiteko eskatu zion Brunori; Shmuelen aita laguntzen bilatzea. Kontzentrazio esparruan zeudela, soldaduak gela handi batean sartzeko agindua ematen die (naziak sorturiko pertsonentzako labeak dira), eta hortik aurrera ez da Bruno berriz ikusiko.

ISTORIOA

Bruno Berlinen bizi zen mutikoa da. Bere aitaren lana dela eta, (kontzentrazio esparru baten zuzendaria da) Auschwitzera joan behar izan zen bizitzera bere arreba eta gurasoekin batera. Etxe berrian egonda, Bruno asko aspertzen zen eta ez zuen gogoko bertan bizitzea, ez baitzegoen umerik haiekin jolastu ahal izateko.

Behin bere logelan zegoela, leihotik begiratu eta urrunean hesi erraldoi batez inguraturiko zurezko hesolak ikusi zituen. Hesi horren bestaldean pertsonak eta umeak zebiltzan.

Brunok espedizioak egitea gustuko zuen. Ondorioz, egun batean, etxearen atzealdetik kontzentrazio esparrura abiatu zen. Ordu batzuk igaro zituen inguruak arakatzen eta neka-neka eginda sentitzen hasi zenean, hesiaren beste aldean mutiko bat ikusi zuen. Bruno oso pozik zegoen bere adineko mutil (Shmuel izenekoa) batekin jolasteko topo egin zuelako eta harekin jolasteko aukera izango zuelako. Ondorioz, egunero joaten zen Schmuel bisitatzera bere gurasoei eta arrebari ezer esan gabe.

Denborarekin Brunoren etxeko giroa aldatu egin zen. Brunok gauza arraroak sumatzen zituen. Bazekien hesiaren beste aldean zegoena ez zirela etxe sinple batzuk eta bertan bizi ziren pertsonak ez zirela haiek bezalakoak.

Egun batean, Brunok Shmuelekin egin zuen topo bere etxean, festa baterako beirazko edalontzietan distira ateratzeko agindua eman baitzion Kotler lotinantak. Hori ikusita eta Schmuel gose handia zeukala jakinda, Brunok oilasko xerra batzuk eskaini zizkion jan ahal izateko, baina une hartantxe Kotler lotinanta agertu zen sukaldetik eta Schmuel jandakoa lapurtzeaz salatu zuen. Brunok, Schmuel babestu ordez, ez zuela inoiz ikusi esan zion Kotler tenienteari.

Egun batzuk geroago, Brunok burdin hesia hainbat aldiz bisitatu zuen bere lagunari barkamena eskatzeko, baina haurra ez zen agertu. Shmuelek, azkenean, itzultzea erabaki zuen. Bere aurpegiak ez zuen eguneroko itxura berbera, zauriz markatuta zegoen (Kotler tenientearen ukabilak eragindako zauriak). Hala ere, Shmuelek Brunori barkatu egin zion, nahiz eta bizi izandako egoera gustuko ez izan.

Egunak igarotzen ziren heinean, tentsioa handiagotu egin zen Brunoren gurasoen artean. Ama ez zegoenez eroso etxe horretan, Brunoren ama, Gretel eta Bruno berriz ere etxez aldatzeko planak egin zituzten.

Brunoren azken abenturetako batean, Shmuelek bere aita bilatzeko laguntza eskatu zion Brunori (baziren hiru egun agertzen ez zela eta horrek arduratuta zuen). Orduan, etxez aldatuko ziren egunean, Brunok hesia igaro zuen Shmuelek harentzat hartu zuen pijama jarrita. Une hartan, espedizio berria martxan jarri zen.

Haren bila denbora luzez igaro ondoren, kontzentrazio-esparruko soldaduak ilaran jartzeko agindua eman zieten eta bertako etxe itxurako eremu batean bildu zituzten judu guztiak.

Beldurrak ikaratuta, bi gazteek elkar eskuak lotu zituzten bata bestea lasaitzeko asmoz. Momentu hartatik aurrera, inork ez zuen informazio gehiagorik jaso bi gazteei buruz.

Hala ere, egun batean, esplorazioan zebilen soldadu batek Brunoren arropak lurrean botata aurkitu zituen. Hauen ondoan kontzentrazio-esparruko hesia pixka bat altxatu zegoen. Bertatik sartu zen Bruno barrura.

Bitartean, Brunoren ama eta Gretel Berlinera bueltatu ziren.

PERTSONAIAK

BRUNO

Bederatzi urte dituen nobelako protagonista gaztea da. Haur oso egongaitza eta esploratzea atsegin du. Lagunak egiteko erraztasuna du eta denbora librean bere arreba zaharrarekin liskarretan ibiltzen da. Fisikoari dagokionez, ez da altua den haurra.

SHMUEL

Istorian Brunoren laguna egiten den gazte judua da, kontzentrazio esparruan bere familiako kideekin bizitzera behartuta dagoena. Brunoren lagun oso ona da. Oso argala da fisikoki, eta nabaria da tratu txarrak jaso dituen gaztea dela.

BRUNOREN AMA

Bruno eta Gretelen ama da, eta etxean aitak inposatutako araei obeditzen die, nahiz eta bere senarraren lana gustuko ez izan. Harekin ez du harreman sendorik.

BRUNOREN AITA

Auschwitzeko kontzentrazio esparruko zuzendaria da. Bere seme-alaben errespetua lortzen du bere izateko eragatik. Etxetik kanpo denbora asko pasatzen duen langilea da. Dirudienez, gizon altua eta itxura onekoa zen; hau da, dotorea.

KOTLER LOTINANTA

Lotinanta nazia da. Nahiz eta etxeko andrearekin eta arrebarekin harreman ona izan, Brunoren antipatia irabazten du, oso pertsona gaiztoa eta bihozgabea delako.

MARIA

Maria etxeko zerbitzaria eta haurtzaina da. Etxeko bi haurrak gazteak zirenetik lan egiten duen haiekin; beraz, familiakoek betidanik ezagutzen duten pertsona da. Azken fasean batez ere, Brunok eta zerbitzariak eueren arteko harremana estutzen dute.

Liburuan garrantzi handirik ez duten beste pertsonaia batzuk agertzen dira; hau da, bigarren mailako pertsonaiak. Adibidez, etxeko zerbitzariak eta Berlinen bizitzen geratu diren Brunoren familiako senideak.

EGITURAKETA

Liburu honen antolaketa kapitulutan eginda da, 20 atalburutan zehazki. Pasarte bakoitzean istorioaren gertakizun berri bat kontatzen da eta esan daiteke kapituluak kronologikoki ordenaturik daudela. Izan ere, kapitulu bakoitzaren hasieran gertakizuna kokatzen den denbora adierazten da. Adibidez:

HILABETE BATZUK LEHENAGO, aitari uniforme berria eman ziotela-eta... (119)

Istorioaren kontaketa era linealean egiten da pasarte gehienetan, izan ere, gertaerak hasieratik amaierara arte jarraian kontatzen dira, baina zenbaitetan flashback egoerak tartekatuz. Momentu horietan, iraganeko gogoetak gogora ekartzen ditu narratzaileak.

BALIABIDEAK

Eleberri hau narrazio bat da, hirugarren pertsonan egiten dena “*Hala, egun batean, papera eta luma hartu zituen, eta amamari gutuna idaztera eseri zen...*” (98) eta non elkarrizketa asko agertzen diren; beraz, pertsonaien arteko interakzio handia dago. Era berean, hainbat barne-bakarrizketa edo barne-pentsamenduak agertzen dira, hala nola:

“–Artean haur bat nintzelarik –esan zuen Brunok bere kolkorako–, gogoko nuen esplorazioan ibiltzea.” (102)

Kontatzeko erabiltzen duen hizkuntza landua eta ulergarria da, baina elkarrizketak daudenean, pertsonaien araberako estilo egokitua erabiltzen du; adibidez, neba-arrebak euren artean hitz egiten dutenean, hika estiloa erabiltzen da; *“–Esan dinat, irakurri nahian ari nindunan –esan zuen...” (155)*

Bestalde, hainbat sinonimo erabiltzen ditu aurretik aipatutako hitzei erreferentzia egiteko. Esate baterako, *“...harrabots handiko **ospakizuna** gertatu zuen abagunerako. **Festarako** egitasmoak zehazteko esertzen zen...” (163).*

Azkenik, inguratzen dituen atmosferaren eta pertsonaien deskribapenak pisu handia du istorian zehar, baina batez ere azkenengo zatian:

“...denak piloan metatu bide zituzten areto handi batean, eta, bero egiten zuen han, harrigarriro, eta segurtasunik handienaz eraikitakoa behar zuen izan lekuak...” (212)

IRITZIA

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa obrak aurkezten duen gaia oso interesgarria eta entretenigarria da. Gainera, egileak ederto garatu du eta horrek nobelak dituen zailtasunak errazten ditu.

Liburuak aurkezten duen istorioa interesagarria da eta garaia ere azpimarratzekoa da.

Bigarren Mundu Gerra garaia oso latza izan zen, nazien bihozgabekeria mundu osoan zehar hedatu zelako. Eleberri honek

frogatzen du inor ez dela arrazista, baizik eta arrazista egiten gaituztela.

Alde batetik, protagonista dago. Brunori, bere gurasoen pentsamenduen edo eta ideologiaren ez-jakintasunak ateak zabaltzen dizkio nahi duen ideologia sortzeko. Izan ere, berak erabakitzen du Shmuelen laguna izatea nahiz eta ume judua izan.

Beste alde batetik, Brunoren arreba dago, Gretel. Honek bere gurasoen ideologia jakiten duenean, bere pentsamenduak aldatzen ditu. Brunoren arreba denbora labur batean, panpinekin jolastetik ideologia nazira igarotzen da. Beraz, esan daiteke, azken batean edozer egiten dugula gure gurasoen nahiak asetzeko.

Egituraren aldetik, ondo bananduta dago, izan ere, kapitulu bakoitzak istorioaren gertakizun berri bat kontatzen du eta horrela obra narrazio lineala bihurtzen da. Hala ere, zenbait egoeratan flashback estiloa ageri da aspaldiko gogoetak gogora ekartzeko.

Idazleak hizkuntza ulergarria eta landua erabiltzen du. Horri esker irakurketa azkarrago gauzatzen da eta erosoago sentitzen da irakurlea nobelaren edukiarekin, nahiz eta zati batzuetan ulertzeko zailtasunak izan (adibidez, bi anai-arrebek hitz egiten dutenean). Nobelak tonu hunkigarri eta dramatiko mantentzen du istorio osoan zehar. Zentzu horretan, idazleak jakin du oso ondo nola irudikatu irakurleak eskatutako sentimenduak edo eta zirrarak.

Pertsonaien aldetik, ikusgarriak dira transmititzen dituzten pentsamenduak eta sentimenduak. Idazleak trebetasunez irudikatu ditu pertsonaien izaerak hitzen bitartez. Brunoren errugabetasuna, eta inozentzia plasmazten ditu idazleak gehienbat eleberrian. Eta bere asmamena istorioan zehar gero eta nabariagoa da.

Nobelaren azkenengo zatian, idazleak, inguruko bistak eta pertsonaien sentimenduak sakonago narratzen ditu eta horrek irakurketa astunagoa izatea eragiten du.

Hau guztia kontuan hartuta, esan daiteke obraren gaia interesgarria dela eta autoreak irakurlearen interesa mantentzea lortu duela, idazkera lineala delako eta ulermena erraza delako.

BIBLIOGRAFIA

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa, John Boyne. Alberdania.

WEBGRAFIA

<http://xuxen.eus/>

http://issuu.com/xabier.ansola/docs/maiatzeko_gustukoenak

<http://www.hiztegia.net/sinonimoak.php>

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>